

La Nao lurmuturra.

Alacantko kostaldean ekialderen dagoen puntua Jávea udalerrian dago: La Nao lurmuturra.

Labar malkartsuak uretara jausten dira, Ibizara joateko asmoz itsasoratuko bailiran.

Eguzkiak, goitik behera sartzen denean, urezko ispiluak sortzen ditu. Ispiluan isla duten izakiak batzuetan hain dira sotilak, ostatu ematen dieten uretatik kanpo ez dira ezer, marmokak, esaterako.

Eta itzala harkaitzen jabe egiten denean, alga esziofiloek, hots: argi gutxirekin bizitzera moldatuek, ingurune bikaina aurkitzen dute biozenosian nagusitzeko.

Alga komunitateak beti dira inguru egokia arraintzat, buztanbeltz hauentzat, adibidez, lehengaietatik abiatuta guztiei elikagaia eskaintzen dien sare trofiko konplexua ezartzen baita.

Mugi ezin daitezkeen organismoak bestelako estrategiez baliatzen dira behar duten oxigenoa eta elikadura lortzeko.

Itsaspeko izakiak ez dira beti hain deigarriak. Kolore ubel honengatik ez balitz, belaki inkrustatzaile hauek nabarmendu gabe geldituko lirateke.

Hala ere, batzuetan, hondo hareatsua bizitzarik gabe aurkitzen da, baina ez aktibitaterik gabe.

Ripple marks deituriko uhindura-markak uraren, olatuen eta haizearen jarduerak harea edo buztinean utzitako sedimentu-egiturak dira. Lur lehorrean nahiz itsas hondotan garatzen dira, eta tokiaren iragan geologikoa azaltzen duen argazkia dira.

La Nao lurmuturreko uretan murgiltzera joaten direnei ur azpiko izaki bizidunak gehiago interesatzen zaizkie sedimentu-egiturak baino;

belaki geldoak eta batzuetan kolore bakarrekoak badira ere.

Ur gardenak eta bertan bizi den organismo aniztasuna direla-eta, ur hauek aisialdiko murgilketarako inguru egokia dira. Baina itsas hondo hauen aniztasuna eta edertasuna arriskuan jar ditzakeen lehen faktorea murgilariak gehiegi eta maizegi joatea da. Itsas-hondoei gehien laguntzen diena gizakiok bertara ez hurbiltzea da. Baina badirudi gizakiak bere presentzia toki guztietan nabaria izatea behar duela, planetaren bazter guztietan, baita itsas azpian ere. Arrantza-ustiaketaz gain, turismoa da La Nao lurmutur inguruan bizi den jendearen aberastasun iturri nagusia.

Ingurune naturala egoera onean mantentzen bada soilik iraungo duen aberastasuna.